

Hiru pertsonak sortu zuten *La Providencia* fabrika hau (hiruk sortu, bai; baina ehunka antigutar apalek sustatu eta gauzatu): hor, gainean, dugun jaun Lizarriturry Ondikona zeritzona: donostiarra, eta Etxarritar batekin ezkondua. Eta ondoko Lizarriturry-tar guztien arbasoa (erdian, Manuel Lizarriturry).

Hirugarrena hortxe duzue, eskuinean: Jose Antonio Gaztañaga.

Elektrika-indarra oraindik ez zela hedatu: eta etxe-barruetan, gauzak eta kristauak argitu beharrez, kandelak erabiltzen ziren, eta kandela horiek koipez oratuak zirenez sekulako kirats atsekabea hedatzen zuten.

Estearina baliatzeko ideia indartu zuten horretara 1830z geroztik. Bai pospolugintzan eta bai kandelagintzan, aldaketa gaitzak somatzen ziren. Eta Lizarriturryk eta Rezolak entpresa bat erakitzea erabaki zuten.

Horretarako, bere pospolu-fabrikari usatua zen Paskasio Lizarbe Ruiz ekarri zuten Tarazona-tik.

900.000 errealeko kapitala bildu zuten; eta Ibaetan, *Errotaundieta*, *Ebro* eta *Konporta*-ren artean, 10.900m kuadro erosi; eta abiarazi egin zuten fabrika berri bat. 1864 zen.

Lizarriturry, senitarteaz eta harremanez ipartar euskalduna izanik (eta hortik *Iturry* bukaera hori), Léon Droux frantsesa deitu zuten Antiguara. Eta 50 langilerekin abiatu zuten fabrika.

Honek berehala jaso zuen garai hartan eman ohi ziren sari haietako pare bat. Alde batetik, Donostia bere udaleku bi-

hurtu berria zuen Isabel II erreginak (Maria Cristina baino lehenago, beraz, udatiar iraunkor izana) bisita egin zuen fabrikara, argazki txiki batean ikusi dugunez (ikus 247. Orr).

Bestetik, zilarrezko domina irabazi zuen, urte berean, Boraleko Azoka Internazionalean.




1894rako 160 langilek egiten zuten lan fabrika honetan. Eta 1915rako, xaboin-fabrika handienetakoa bihurturik, 40 tonelada egiten zituen egunero; baita 70.000 kandela ere, makina guztiak mugitzeko 1.500 H.P.-tako potentzia jarria zuelarik.

Orain osoki eraatxia eta erraustua izan den fabrika handi horretan, haizalek antigitarrek pasa du bere biziera osoa; eta langile horien biziera zinez merezi luke nik orain egingo ez dudana azterketa sakona. Agian beste batek hutsune hau beteko!

Lizarriturry izenak, nolani ere, bi gertakari hitsetan gailendu zen hondoko urteetan.

1904an, zezenaren eta tigreen arteko borroka famatua mamitu zen egunean (eta zein donostiarrek ez du apostu lotsagarri horren oihartzunik jaso?), ihes egin zuen piztiak; eta poliziak garbitu behar izan zuen tiroka. Bala haietako batek, ordea, Jean Pierre Lizarriturry frantsesa hil zuen (hailaxe zion Donostiako prentsa ahobatez); prestatutako hastakeria ahalgarriak donostiarren lotsaz gain gazte baten odola ere berarekin eraman zuelarik...

J. L. A. Enparantza. "Txillardegia".





Esta fábrica *La Providencia* fue creada por tres personas (creada, decimos, por tres; aunque haya sido sustentada y realizada por centenares de modestos antigutarras); que tenemos ahí, a la vista; arriba el llamado Juan Lizariturry Ondikola, donostiarra, casado con una Etxarri. Y antepasado de todos los Lizariturry posteriores. El segundo, en el centro, es Manuel Lizariturry. El tercero de ellos abajo, es José Antonio Rezola Gaztagaña.

Dado que todavía no se había extendido el uso de la electricidad; y que había que iluminar cosas y personas, en el interior de las casas, se utilizaban velas; y puesto que esas velas se confeccionaban a base de sebo, aquéllas desprendían un odor muy desagradable.

Aproximadamente desde 1830 se reforzó la idea de usar estearina. Se notaban cambios espectaculares tanto en la fabricación de cerillas como en la de velas. Y Lizariturry y Rezola pensaron en construir una empresa que trabajara en este sector.

Para eso trajeron de Tarazona a un tal Pascasio Lizarbe Ruiz, que había adquirido cierta experiencia en su fábrica de cerillas.

Reunieron un capital de 900.000 reales; compraron 10.900 metros cuadrados de terreno, entre *Errotaundieta*, *Ebro* y *Konporta*; y pusieron en marcha una nueva fábrica. Era 1864.

Siendo Lizariturry, tanto por su origen familiar como por sus relaciones, un vasco del Norte (y ahí está la clave de esta *lthurry*, terminada en y), se llamó al Antiguo al francés León Droux. Y la fábrica

fue puesta en marcha con un personal de 50 operarios.

Enseguida recibió la empresa un par de aquellos premios que solían concederse en aquellos tiempos.

Por una parte, la Reina Isabel II (que era ya veraneante habitual, mucho antes que María Cristina) visitó la fábrica.

Y por la otra, y aquel mismo año, ganó una medalla de plata en la feria internacional de Burdeos.

Para 1894 trabajaban ya en ella 160 obreros. Y para 1915, cuando se había convertido en una de las mayores fábricas de jabón de la época, producía 40 toneladas diarias; así como 70.000 velas; con una potencia instalada de 1.500 H.P.

Muchísimos antigutarras han pasado todas sus vidas en aquella gran fábrica, que acaba de ser demolida y liquidada totalmente; y bien merecían sus vidas un estudio que yo no podré presentar aquí.

En todo caso, el apellido Lizariturry se destacó en dos luctuosos sucesos acaecidos pocos años después.

El día en que se concretó la célebre pelea "entre un toro y un tigre", en 1904 (¿y quién es el donostiarra, al menos en nuestra generación, que no haya recibido ningún eco de aquella vergonzosa apuesta?), huyó el tigre; y la policía tuvo que acabar a tiros con su vida.

Pero una de aquellas balas mató al francés Jean Pierre Lizariturry (es lo que decía unánimemente la prensa donostiarra); llevándose la vergonzante salvajada, además del honor de los donostiarras, la vida de un joven...

J. L. A. Enparantza. "Txillardegi".

